

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[B eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

ANE GABARAIN

Ane Gabarain aktorea (Donostia, 1963) Allí Abajo telesailan ari da orain. Bi eta bat ETB1eko telesailak eman zion fama, eta denetik probatutakoa da ordutik: antzerkia, telebista, zinea eta bikoizketa.

1

Modu naturalean suertatu zen, eta normal-normal hartu zuten etxean. Gure etxean zoro samarrak izan gara beti, eta eurentzat enpresaritzak ikasketak egin nahi nituela esatea izango zen arraroa. Etxekoei eskerrak eman beharrean nago.

2

UBI ikasketak amaitu, eta orduantxe sortu zuten Antzerki, Eusko Jaurilaritzaren antzerki-eskola. Izugarritzko zortea izan genuen, oso irakasle onak eduki genituelako. Bizpahiru urtera, ordea, bertan behera gelditu zen dena; baina pentsa zenbat aktore atera garen handik: Elena Irureta, Aizpea Goenaga....

3

Oso gauza kuttuna izan zen, eta, denbora pasatu ahala, are kuttunagoa dut. Guretzat oso garrantzitsua izan zen; oso entrenamendu sendoa izan zen. 26 atal bakarrik egin genituen; dirua eta denbora geneuzkan programa hori egiteko, eta asko zaintzen zuten dena: gidoiak, errealizazioa....

4

Nahiko natural aritzen gara batean zein bestean. Antzerkian ohituta gaude bi bertsioak egitera. Batzuetan, hizkuntza batean sortzen da antzezlanak, eta gero itzultzen da bestera. Normalean, hasierako formatuan sentitzen gara erosoan, baina ez dugu izaten arazorik.

5

Gure telebista indartu egin behar dugu. Ez dakit zergatik daukagun hain telebista pobrea. Hain gizarte pobrea osatzen al dugu? Oso frustrantea da, eta min ematen dit.

6

Boladak izaten ditugu. Dagoeneko ikasi dut lanik ez daukadanean telefonoari begira ez egoten. Zerbait asmatu behar da horrelakoetan: lankideekin elkartu, gauzak sortu, idatzi, bakarriketak prestatu....

7

Bueno, batzuei bai, baina ez dira gehiegi izan. Nahiago dut aukera aprobetxatu, nahiz eta batzuetan damutu gero.

8

Bidali egiten dizkigute, eta zer erremedio! Garai batean gogoratu ere ez nintzen egiten horrek; baina beste kontu bat da oraingoa, berehala izaten ditugulako kopuruak, eta horren arabera hartzen dituztelako erabakiak.

ZUBELDIA, U.

Gipuzkoako Hitza. 2018ko otsaila. Egokitua

1. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Zer izan zen zuretzat *Bi eta bat* telesaila?
- B. *Bi eta bat*, *Jaun ta Jabe*, *Goenkale*... Fama handiko telesailak izan ditu ETBk, baina beste bide bat hartuta dabil azkenaldian, ezta?
- C. *Allí abajo* telesaioan ari zara, ikusle-datuak begiratzen al dituzu?
- D. Euskal Herriko aktoreek oso fama ona duzue, baita kanpoan ere, ezta?
- E. Noiz hartu zenuen aktore izateko erabakia?
- F. Euskaraz zein gaztelaniaz aritzen zara lanean. Bi erregistroetan sentitzen zara eroso?
- G. Gorabehera handiak daude zuen lanean?
- H. Eskaintza askori esan al diozu ezetz?
- I. Nola bihurtu zinen aktore?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Galderak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ELIZABET HAWLEY, BULEGOKO ALPINISTA

Berriki hil da Katmandun Himalaiako notarioa, Elizabeth Hawley, Miss Hawley, pneumonia baten ondorioz, 94 urte zituela.

Chicagon (Ameriketako Estatu Batuak) 1923an jaioa, 1950eko hamarkadan ezagutu zuen Nepal, munduari bi urteko bira ematen ari zela. 1963an bueltatu zen, *Reuters* albiste-agentziak bidalita, mendiko albisteak jasotzera. «Nepalera berriro etorri nintzenean, ez nuen uste bertan geratuko nintzenik.»

Espedizioei buruzko informazioa jasotzen, ordenatzen eta erregistratzen hasi zen. Haren lan zehatzek eta zorrotzek Himalaiako notario bihurtu zuten. Ez ofiziala, ez derrigorrezkoa, baina bai alpinismoan eta alpinismotik kanpo errespetatuena eta ospetsuena.

«Inoiz ez nuen izan horretan aritzeko asmorik», esan zuen 2011. urtean. Inertzia izan omen zen. *Reuters*entzat lanean ari zela, espedizioekin biltzen zen, informazioa jasotzeko eta zabaltzeko. «Jendeari erabilgarria iruditzen zitzaionez, jarraitu beharra zegoen».

Notario eta epaile izan zen Hawley. Horregatik, alpinistek errespetua eta beldurra zioten. Hoteletan egiten zien bisita: bata espedizioaren aurretik, bestea ondoren. Lehenengoan, zein mendi igo behar zuten, nondik, nola, nork... galdetzen zien; bigarrenean, aldiz, igo zuten egiaztatzen zuen, igoera nolakoa izan zen galdetuz, gailurrean zer zegoen, zer ikusi zuten...

«Eszeptiko samarra naiz, baina pentsatzen dut mendizale-jendea zintzoa dela, hitzekoa, eta normalean sinetsi egiten diet», esan zion Miss Hawleyk *Euskaldunon Egunkaria*-ri 2002an.

Baina batzuetan bestelakoak ere gertatu egiten dira: lehenengo onartu egin zuen Oh Eun-Sun korearrak Kanchenjunga (8.586 metro) 2009an egindako igoera, hamalau zortzimilakoak igotzen lehen emakumea izateko lehian. Kontrako frogak jaso ondoren, ordea, azkenean garbi geratu zen gezurra izan zela.

Alpinisten heriotzak jasotzea izaten zen bere lanbidearen zatirik gordinena, aste batzuk lehenago ikusi eta elkarrizketatu zituen mendizaleak hil egin zirela jasotzea, hain zuzen.

1991n, Richard Salisbury estatubatuarrak proposatuta, informazio guztia, datu-base batean jarri zuten, bestelako datu batzuekin osatua: *The Himalayan Database*. Nepalgo 450 mendi nagusietako 1905 eta 2017 arteko espedizioak bildu dituzte bertan. Hawleyk 2016an utzi zion, ordea, datuak biltzeari. Haren laguntzaileak, Billi Bierling alpinista eta kazetari alemaniarrek, hartu zuen ardura orduan.

Hawleyk ia bizitza osoa eman du Nepal. Urteotan nepalera ez ikasi arren, nepaldarrak estimatzen zituen. Min egiten zion, esaterako, gailurra egin zutenen izenak eskatutakoan, gehienek xerpak ahaztea; hala ere, onartzen zuen zaila zela zerrenda zehatza egitea, xerpa askok izen berdinak dituzte eta.

OLASAGASTI, R.

Berria, 2018ko urtarrila. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

9. Noiz erabaki zuen Miss Hawleyk Nepalen geratzea?

- a) Kazetari-lana egitera joan zenean.
- b) 2. mundu-biran, herrialdea ezagutu zuenean.
- c) Hara lehen aldiz joan zenean.

10. Zergatik bihurtu zen Miss Hawley Himalaiako notario?

- a) Espedizioekin oso harreman estua zuelako.
- b) Alpinismoan pertsona errespetatuena eta ospetsuena zelako.
- c) Haren lan egiteko modu bereziagatik.

11. Testuaren arabera, zer gertatzen zen bisitekin?

- a) Miss Hawleyk beldurra ziela alpinistei.
- b) Miss Hawleyk oso galdera zehatzak egiten zituela.
- c) Lehenengo bisita garrantzitsuagoa zela bigarrena baino.

12. Zer adierazi zion Miss Hawleyk *Euskaldunon Egunkaria*-ri 2002an?

- a) Mendizaleak zintzoak baziren ere, ez zirela oso hitzekoak.
- b) Oso eszeptikoa zela normalean mendizaleen hitzekin.
- c) Mendizaleekin fidatzen zela, oro har.

13. Zer gertatu zen Eun-Sun korearrarekin?

- a) Miss Hawleyk hasieran sinetsi egin ziola.
- b) Kanchenjuga (8.586 metro) mendira igo zela.
- c) Hamalau zortzimilakoak egin zituen lehen emakumea izan zela.

14. Zer zen Miss Hawleyrentzat gogorrena?

- a) Informazio guztia ondo gorde eta antolatzea.
- b) Mendizaleek bera engainatzea, gezurra esatea.
- c) Harekin hitz egindako alpinistak mendian hiltzea.

15. Zer nolako informazioa dago *The Himalaya Database*an?

- a) Primerako informazioa, Nepalgo mendi-espedizio ugariz.
- b) Miss Hawleyren informazioa bakarrik.
- c) R. Salisburyk eta Billi Bierlingek jasotakoa.

16. Zer gertatu da Miss Hawleyren lanarekin?

- a) Richard Salisburyren zuzendaritzapean dagoela datu-bilketa.
- b) Hil arte jarraitu duela lanean, datuak biltzen.
- c) Miss Hawleyren laguntzailea dela arduraduna 2016tik.

17. Zer iritzi zuen Miss Hawleyk Nepali buruz?

- a) Batez ere, mendiak eta espedizioak interesatzen zitzaizkion.
- b) Errespetu handia zien nepaldarrei.
- c) Oso polita eta bitxia zela, baina hizkuntza zaila zutela.

3. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A KURSAAL

Auditoriuma: 1.806 besaulki ditu; halere, ekitaldiak eskatzen badu 1.148ra murriztu daitezke. Aretoak teknologia aurreratua du, akustika paregabea, eta funtzionalitate oneneko eszenatokia antzerkiak, operak... egiteko. 2 VIP areto ere baditu; baita koktelak, afariak edo aurkezpenak egiteko gune ederra ere (1.800 lagun sar daitezke).

Aipagarriena auditorioa bada ere, 20 bilera-areto daude 10-575 pertsona har dezaketenak, era guztietako ekitaldiak egiteko.

Kalitatea eta sormena batera doaz Kurasaaleko sukalde-zerbitzuan, erreferentzia diren Bixente Arrieta eta "bi Michelin izar" dituen Antoni Luis Adurizen eskutik.

Aparkalekua egun osoan dago irekita, eta bertatik jauregira zuzeneko sarbidea dago. Autoa garbitzeko aukera ere bada. Antolatzaileek ekitaldiaren kalitatea hobetzeko, aparkaleku-zerbitzua eskaintzen dute, gainera.

<www.kursaal.eus> Egokitua

B EUSKALDUNA JAUREGIA

Euskalduna Jauregiari Munduko Biltzar Zentro Onenaren saria eman zion Biltzar Jauregien Nazioarteko Elkarteak 2003. urtean.

Azpimarratzekoa da Erakusketa Hall bikaina (4.200 m²): 2.000 lagunetik gorako banketeak egiteko egokia.

Auditoriuma: 2.164 lagun har ditzake, eta ekipatuta dago biltzar handi, ekitaldi korporatibo, kontzertu sinfoniko, eta opera eta ballet mota guztietarako. Aretoa erdira ere ekar daiteke, eta hori aukera ezin hobea da 1000 pertsona inguruko ekitaldietarako. Orkestra-zuloa ere badu. Eskatuz gero, erabil daitezke 12 kamerino indibidual, 10 kamerino kolektibo eta 2 entsegu-areto.

Kafetegiak eta bi jatetxe ditu, (Jauregia eta Etxanobe, Michelin izar bat duena); Jauregia jatetxearen bitartez, catering-zerbitzua eskaini ahal du Euskalduna Jauregiak 3.000 pertsonarentzat.

475 ibilgailurentzako tokia duen aparkalekua du.

<www.euskalduna.eus> Egokitua

C EUROPA JAUREGIA

Gasteizko Europa Jauregia arkitektura jasangarriaren erreferentzia da. Aipatzekoa da fatxada osoan daukan lorategi bertikala. Arabako eta Euskal Herriko 33.000 landare baino gehiago erabili dira horretarako.

Bi entzunareto edo auditorium ditu jauregiak, biak jende askorentzako prestatuak: María de Maeztu eta Francisco de Vitoria.

María de Maeztu auditoriuma (567m²) da jauregiko harribitxirik preziatuena: eremu moderno eta atsegina, 800 lagunentzako lekua du, eta ezin hobea da eszenategia behar duten ekitaldietarako. Francisco de Vitoria auditoriuma (451 m²), berriz, hitzaldiak antolatzeko da aproposa. Anfiteatro-itxurako diseinuari esker, elkarrengandik hurbil egoten dira entzuleak eta hizlariak. Teknologiarik puntakoena du eta 446 lagunentzako lekua.

Parking pribatua handitu nahi da eta oraingo 206 plazak 225 bihurtu. Horietatik, 96 izango dira Europa Jauregiko erabiltzaileentzat.

<www.vitoria-gasteiz.org> Egokitua

3. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

18.	Bi auditorium daude leku horretan.
19.	Bertan jateko, jende-kopuru handiena har dezake.
20.	Hainbat neurritako aretoak ditu bilera eta ekitaldiak egiteko.
21.	Aparkalekua berritu nahi dute eta plaza gehiago jarri.
22.	Nazioarteko sari bat irabazi du.
23.	Anfiteatro-itxurako auditorioa du, hitzaldietarako egokia.
24.	Autoa uzteaz gain, aparkalekuak beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu.
25.	Eraikin honek fatxada berezia du.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz koptatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Atzo erori egin zinen kalean, espaloia ren egoera dela eta. Horregatik, gaur udaletxera jo duzu erreklamazioa jartzera.

Azaldu zer gertatu zitzaizun eta zergatik, eta proposatu zein izan daitekeen konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udal langilea zara, eta, gaur goizean, mezu bat jaso duzu

■ Hauxe da jaso duzun mezua:


Idatzi mezua



















Bidali Gorde Baztertu

Norentzat:

[Gehitu Cc](#) | [Gehitu Bcc](#)

Gaia: Informazio eske

 [Erantsi fitxategia](#)

B *I* U **F** **T** **T**                   [« Testu arrunta](#) [Egiatzatu ortografia ▼](#)

Egun on:

Marta Jauregi naiz eta hilabete daramat hemen bizitzen. Berria naizenez, zuengana jo dut herrian zein kultura-eskaintza dagoen jakin nahian: ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak...

Emango zenidake horien inguruko informazio zehatza?

Zure erantzunaren zain, eskerrak ematen dizkizut alde zurretik.

Marta Jauregi

■ Erantzun iezaiozu Martari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «ANE GABARAIN, AKTOREA»

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Galderak	E	I	A	F	B	G	H	C

Soberakoa	D
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ELIZABET HAWLEY, BULEGOKO ALPINISTA»

9.	A	10.	C	11.	B
12.	C	13.	A	14.	C
15.	A	16.	C	17.	B

- **3. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «KURSAAL, EUSKALDUNA JAUREGIA, EUROPA JAUREGIA»

18.	C	19.	B	20.	A	21.	C
22.	B	23.	C	24.	A	25.	C

